



20

Lezoko Unibertsitateko Udala
DIKTAMENA

3 Poligonoko 31 lursaila soberako lursaila aitortzea
2016H0380001

Lezoko Udalak 2016ko otsailaren 8ko Tokiko Gobernu Batzordean zera erabaki zuen, Lezoko Gaintxurizketa Goikoa bailaran, ondare-ondasun gisa kalifikatua dagoen Katastroko 3 poligonoko 31 lursaila, udalaren jabetzako lur-eremuaren soberako lursaila aitortzeko espedientea jendaurrean jartzea hilabetez.

Hirigintza Teknikariak jarraitu beharreko prozedurari eta aplikatu beharreko legeriari buruz, eta lursailaren egoera fisikoari eta soberako lursail aitortzearen egokitasunari buruzko txostenean oinarritu zen adierazitako akordioa.

Erabakiaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2016ko otsailaren 19an, 33 zenbakian. Hilabeteko jendaurreko epean ez da alegazio edo erreklamaziorik aurkeztu.

Ondare-lurraren soberako lursaila aitortzea egokia da, izan ere, egun, ez du ezelako erabilgarritasun edo erabilera publikorik, bertatik pasatzen den herri-bidea izan ezik. Gainera, forma irregularra duenez eta dagoen tokian dagoenez, ez du balio erabilera egokirik izateko, ezta bertan eraikuntzarik egiteko ere, bere azalera eraikitze gutxienez egon beharreko lursaila baino txikiagoa baita

Soberako lursaila aitortzea egokia dela zeharo egiaztatu da, ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuak 7.eta 8. artikuluetan galdatu denarekin bat etorriz -Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onetsi zuen arau horrek, TEOE-.

Soberako lursaila aitortzea egokia dela zeharo egiaztatu da, ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuak 7.eta 8. artikuluetan galdatu denarekin bat etorriz -Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onetsi zuen arau horrek, TEOE.

Horiek horrela, arestian aipatu Hirigintza Teknikariaren txostena kontuan izanik,

Joan den 2016-05-19an, osteguna, Batzorde informatibo orokorrak aho batez, ondorengo diktaminatu du osoko bilkurak onar dezan:

DIKTAMINA

LEHENENGOA.- Lezoko Gaintxurizketa Goikoa bailaran, ondare-ondasun gisa kalifikatua dagoen Katastroko 3 Poligonoko 31 lursaila, udalaren jabetzako lur-eremua soberako lursaila aitortzea, bertatik igarotzen den herri-bideak okupatzen duen zatia izan ezik.

BIGARRENA.- Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Lezon 2016-05-23

Jesus Maria Martiarena Jaca Batzorde Informatibo Orokorreko Lehendakaria.

